

IZPIEN TXOKOAREN jarraibideak

2024-2025 ikasturtea

Abenduaren 19tik uztailaren 6ra

► Orduategia

Egunero	9:30 – 20:30
---------	--------------

► Txartelak itzultzeko epea:

Izpien txokoa ez duzula erabiliko erabaki bezain pronto eta beti ere, **2025eko uztailak 14 baino lehen.**



Zer zerbitzu eskaintzen da?

Agirre-etxeberriko areto handian dagoen Izpien txokoa erabiltzeko aukera. Bertan, seme-alabak eta familiak jolasteko hainbat txoko izango dituzte.

Noiz erabil daiteke?

2024ko abendutik 2025eko uztailaren 6ra art.

Zein da ordutegia?

Egunero, 9.30etik 20.30era.

Nortzuk erabil dezakete Izpien txokoa?

Herrian erroldatuta dauden 0-3 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak.

Bananduta dauden familien kasuan, bi txartela izateko aukera izango dute.

Sarbidea nola arautuko da?

Sarbidea txartela bidez arautuko da.

Zer egin behar dut txartela eskuratzeko?

Txartela eskuratzeko eskaera orria bete behar da, udalaren webguneko egoitza elektronikoan aurkeztuta edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (07:30-15:00).

Non eta noiz lortu dezaket txartela?

Egindako eskaera onartu ondoren, abisu bat jasoko duzu Izpien txokoaren txartela Kultur Etxeko harreran jasotzeko.



**LEGAZPIKO
UDALA**



Zerbait ordaindu behar da?

Ez, txartela doakoa da.

Baimendutako epea amaitzean **txartela itzuli beharko duzu.**

Baita zerbitzua gehiago erabili behar ez baduzu ere, nahiz eta denboraldia amaitu gabe egon.

Txartela galdu edo itzultzen ez bada,

5 euro ordaindu beharko dituzu.

Txartela izanda, tokia izango dut?

Txartelarekin finkatutako egunetan eta orduategian erabiltzeko aukera izango duzu.

Toki libre badago gera zaitzke, bestela ez.

Txartela utz diezaioket beste familia bati?

Ez, familia eskatzaileak bakarrik erabili dezake.

Ezin du beste familia batek erabili.

Txartelik ez baduzu, ezin duzu txoko hau erabili.

Txartela galtzen badut, zer egin behar dut?

Abisua lehenbailehen eman beharko duzu

Kultur Etxeko harreraren sarrera baimena baliogabetzeko.

Ondoren **5 euro** ordaindu beharko dituzu,

eta beste bat atera beharko duzu.

Txartela erabiltzen ez badut, zer egin behar dut?

Txartela itzuli beharko duzu

eta Kultur Etxeko harreraren entregatu beharko duzu.

Izpien txokoaren azken erabiltzailea banaiz, zer egin behar dut?

Gauzak txukun utzi eta atea itxi

Txartelekin arazoren bat badago, zer egin behar dut?

Kultur Etxeko Harrerara joan zaituz

edo isanz@legazpi.eus e-postara mezu bat bidal ezazu,

zein arazo daukazun azalduz.




LEGAZPIKO
UDALA



JARRAIBIDEAK

- Izpien txokoa erabili ahal izateko ezinbestekoa da sarbiderako **doako familia txartela** eskuratzea. Txartelik ez baduzu, ezingo duzu izpien txokoa erabili.
- **Erabilera guztiak erregistratu** behar dira. Sartu eta gero, **atea itxi behar da**; horrela hurrengo erabiltzaileak bere sarrera erregistratu ahalko du.
- **Erabiltzaileak**: 0-3 urte bitarteko haurrak duten familiak.
- **Haurrak ezin dira bakarrik utzi.**
- **Anai-arreba zaharragoak ez dira lehentasunezko hartzaileak** eta bakarrik bazaudete ez da gunea erabiltzeko arazorik egongo, baina beti erantzukizunez jokatzuz eta gainerako erabiltzaileak errespetatuz.
- Haurren **karroak sarreran** utzi behar dira.
- **Ezin dira etxetik jostailuak ekarri.**
- **Berokia eta oinetakoak eskailera azpiko gunean** utzi behar dira eta balioa duten gauzak ez utzi bertan, udala ez da horren kargu egingo.
- Koltxoneta ganean ibiltzeko **oinetakoak kendu** behar dira.
- **Gunea garbi** mantentzearen ardura familia erabiltzaileei dagokie.
- **Ezin da jan.** Ezin da erre.
- **Mugikorrak itzali edo isiltasunen jarri** behar dira. Hitz egin behar baduzu, kalera atera zaitez.
- Gunea guztiona da, denok daukagu eskubidea hau erabiltzeko; beraz, denbora bat eman baduzu bertan eta erabiltzaile gehiago zain badaude, **erantzukizunez** jokatu eta besteei tokia utzi iezaiezu.
- Joan aurretik **dena txukun** utziko dugu.



Izpien txokoaren erabiltzeko jarraibideak
betetzen ez badira, Udalak ahalmena izango du,
behar diren neurriak hartzeko eta sarrera baimena baliogabetzeko.